

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA
PROIEKTUEN DEIALDIA
(2025)**



HITZAURREA

Unibertsitatearen Estatutueta adierazten den bezala, UPV/EHUk onartu eta bermatu egiten du ikerkuntzarako askatasuna, zientzialarien komunitateak onetsitako lege eta kode deontologikoez ezarritako mugak besterik ez duela. Euskara sustatzeko konpromisoa hartzen du, ikerkuntzan, jakintzaren transferentzian eta zientziaren zabalkundean, eta berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko ikerkuntza bultzatzeko, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasangarria mehatxatzen dituzten arazoak. Alde horretatik, ikerketak ekarpena egingo dio, era kontziente eta erabakigarrian, garapen jasangarrirako 2030 Agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzeari.

2025. urteari dagokion Unibertsitatea-Enpresa-Gizarte proiektuen deialdi honen xedea da kalitatezko ikerkuntza sustatzea, RIS3ren eremuetan bereziki, ikerkuntzarako baliabideak egokitu eta hobetzea, eta jakintzaren transferentzia indartzea, laguntza eta babesa eskainiz gure unibertsitateko ikertzaileei, jakintza arlo guztietan.

Helburu honetarako 375.000 € bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Unibertsitatea-Enpresa Kontratu Programaren barruan, "Unibertsitatea-Enpresa-Gizarte Proiektuen deialdia sustatzea eta Unibertsitatea-Enpresa lankidetzaren kontratuen egitea bultzatzea, bereziki ETEekin eta RIS3 lehentasun eremuetan" izeneko ekintzan esleitutako finantzaketari lotutako aurrekontu kredituari dagozkionak. Kopuru hau handitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu aukeren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB, aurrerantzean) oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespina jaso ondoren, Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza erabaki du UPV/EHUko Unibertsitatea-Enpresa-Gizarte proiektuen deialdia (2025) argitaratzea.

1. oinarria. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua jakintza sortzea eta berori gizartearen esku jartzea da, UPV/EHUk berrikuntzarako behar duten erakunde edo eragile ekonomiko, bereziki ETEak, eta sozialekin (aurrerantzean, eragileak) duen elkarreraginaren bidez. Laguntzei esker, gure unibertsitatearen bost jakintza arloetan ikertu ahal izango da: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak eta Arteak eta Giza Zientziak.

Ikerkuntzarako ekintzen bidez, erdietsi nahi diren oinarritzko helburuak dira:

- Jakintza handitzea, bere horretan ondasuntzat jo nahi baita.
- Berrikuntza bultzatzea, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- Ekarpina egitea jakintzaren transferentziari eta harremanak estutzeari eta dinamizatzeari unibertsitatearen, enpresen eta gizartearen artean.

2. oinarria. DEIALDI HONETAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUN EZIN IZATEKO ARRAZOIAK

Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu, egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmo bidez dirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dutenak.
- ii. Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak egunean ez dituztenak.
- iii. Ebazpen irmo bidez eta dagozkion legeen arabera, dirulaguntzak jasotzeko ezintasuna dutenak.

Ezin izango dira onuradun izan ikertaldeak baldin eta bere kideetako edozein aurreko egoeraren batean balego.

3. oinarria. UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA PROIEKTUEN HELBURUAK

3.1. Proiektu hauen xedea da jakintza gizareratzen laguntzea ikertaldeei, eta ikertaldeek eta haien ingurune sozioekonomikoaren arteko elkarreragina bultzatzea, gai izan daitezen sortutako jakintzaren transferentzia egiteko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik eta masa kritiko handiagoko taldeen bitartez.

3.2. Proiektu hauetan jarduera berritzaileak sustatu behar dira, enpresei jakintza transferitzen dietenak, edo Euskal Herriko gizarte erakundeetako ageriko onura dakartenak.

3.3. Ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu proiektu gisa aurkeztutako zerbitzu proposamenak.

3.4. Ezinbestekoa izango da proiektuan gutxienez unibertsitateko ikertalde batek eta erakunde

ekonomiko edo sozial batek parte hartzea.

3.5. Parte hartzen duten erakunde ekonomiko gutxienez proiektuko gastu aurrekontuaren % 10 finantzatu beharko dute, eskudirutan egindako ekarpenaz. Erakunde batek baino gehiagok hartzen badute parte, banakako gutxieneko ekarpena %10ekoa izango da. Erakunde laguntzailea GKE edo, fundazio, kultur elkarte, aisiarako elkarte edo gisa honetako irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeak, hirugarren sektorekoak, direnean (aurrerantzean IAGE), kasuan kasu eta administrazio publikoei aplikatu beharreko legeriarekin bat etorrira eratu direlarik, % 10ekoa izango da, eta dirutan egindako ekarpenaren ordeztu ikertzaileen edo teknikarien parte hartzea edo diruz besteko bestelako ekarpena izan liteke ikerketaren garapenean egindako ekarpena, beti ere proiektuaren behar bezalako gauzatzeari begirakoak eta sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenak, legokiokeen atalean, behar bezala deskribatuz gero. IAGEen kasuan, behar bezala erregistraturik egon beharko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren erregistroan eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute non baieztatuko baitute patronatuko kide edo bazkide guztiak irabazi asmorik gabeko erakundeak edo administrazio publikoak direla (I. ERANSKINA).

Proiektuen iraupena urtebete edo bi urtetakoa izango da.

3.6. UPV/EHUk baloratu egingo du gizarte edo ekonomia erakundeei elkarlanaren egokitasuna, erakunde horien balio etikoak eta proiektuaren helburua unibertsitatearen balio etikoekin bat ote datozen.

4. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

UPV/EHUko IKERTALDEA

Ikertaldeek 4.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 4.2. atalean zehazten dituen baldintzak beteko.

4.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako pertsonal lan- funtzionarioak edo kontratadunak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikulua modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramón y Cajal programako UPV/EHU kontratatutako langileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; UPV/EHU atxikitako Ikerbasque programako langileak; eta irakasle atxikiak edo lehenago atxikitakoak eta plaza iraunkor baterako akreditatuta daudenak; eta Irakasle Laguntzaile Doktoreak.
- Pertsonal ez iraunkorra, UPV/EHUrekiko lotura Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez dutena eta Lan kontratadun bitarteko irakaslea edo ordeztu irakaslea, bi kasuetan doktore eta lanaldi osoko dedikazioarekin. Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileei dagokienez, doktorego tesiaren zuzentzaileak proiektua eskatzen duen ikertaldeko kide beharko du izan.
- Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

Zerrendatutako edozein taldeko pertsonal ez-iraunkorren kasuan, UPV/EHUrekiko kontratuak edo loturak gutxienez 2026ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan beharko du.

4.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:

- Ikertaldeak, gutxienez dela, 4.1.a. atalean aipatutako kolektiboetako hiru doktore izango ditu osakide.
- Eskaera koordinatzen duen ikertzaile nagusia 4.1.a. atalean aipatutako kolektibo batekoa izango da. Doktorea ere izango da eta arduraldi osoa izango du UPV/EHU.
- Proiektuek bigarren ikertzaile nagusi bat eduki ahal izango dute, ikertzaile nagusi modura arituko den lehenak huts egiten duenerako, eta 4.1.a. ataleko baldintzak beteko ditu.
- Gutxienez bi ikertzaile nagusietako batek enplegu loturaren bat izan beharko du UPV/EHUekin; kasu horretan, proiektuaren administrazio kudeaketarekin zerikusia duten eginkizunen

arduraduna izango da, ematen bada. Proiektuaren administrazio kudeaketa UPV/EHUrekin enplegu lotura duen ikertzaile nagusiaren antolakuntza unitatean egingo da (saila, institutua edo antzekoa).

- e. Ezin izango da proiektuetarako ikertaldeetako kide edo ikertzaile nagusi izan, UPV/EHUren Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea proiektuetako 2024 urteko deialdian lagundutako ikerketa proiektu batean parte hartu zuen ikertzailea.

4.3. Aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartzea: Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du parte hartu aldi berean deialdi honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartzen badu, proiektu horietatik kanpo geldituko da.

ERAGILEETAKO LAGUNTZAILEAK

Gutxien dela, eragilearen plantillako ikertzaile batek hartuko du parte proiektuan. Komeni da goi mailako titulua edukitzea, eta esperientzia akreditatua proiektuaren aztergai.

5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatzekeko laguntzak.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta tresneria informatikoa. UPV/EHUko [Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuen](#) prozedurei jarraituz erosi beharko da

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektua amaitzeko sei hilabete baino gutxiago gelditzen direnean. Epe hori igarota, epigrafe honetara bideratu eta erabili gabeko finantzaketa erretiratuko du Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak.

- c. Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.

Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, bai eta ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.

- d. Bidaiak eta dietak: ikerlana dela-eta egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, bai eta, gehien dela, lau aste arteko egonaldiak ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskarian. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarriketak, etab), joan-etorrien kostua bidaien eta dieten atalean sartuko da. Atal honetan sartuko dira ere biltzarretan parte hartzeko bidaiak sortutako gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketa.

Gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik 4. oinarriko baldintzak betetzen dituzten ikertaldeko kideek eta proiektuan parte hartzen duen erakundekoek eginikoak.

- e. Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste: ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHUn lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

Gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik 4. oinarriko baldintzak betetzen dituzten ikertaldeko kideek eta proiektuan parte hartzen duen erakundekoek eginikoak.

5.2. Eskatu ahal den gehieneko diru laguntza 2.000 eurotakoa izango dira urte eta UPV/EHUri dagokion pertsona bakoitzeko, eta 20.000 euro/urte gehienez proiekturako.

6. oinarria. HARREMANA ERAGILE LAGUNTZAILEEKIN

6.1 Erakunde eragileko pertsonaren eta UPV/EHUren arteko harremana arautu egingo da lankidetzaren hitzarmen bidez, deialdi honi erantsitako bi ereduak bat erabilita, erakunde motaren arabera:

- a. Erakundearen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena, ikerketa proiektu bat egiteko.
- b. GKE edo (IAGE) irabazi asmorik gabeko erakundeen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena.

hitzarmena, ikerketa proiektu bat egiteko.

Erakundeak lankidetzat hitzarmena sinatuko du, deialdian eskaera aurkeztu aurretik, eta soilik sartuko da indarrean Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak proiektu proposamenaren aldeko ebazpena ematen badu.

6.2. Akordioak agenteak egin beharreko ekarpen ekonomikoa jasoko du. Ekarpene hori bat etorriko da eskaeraren aurrekontuan definitutako euro kopuruarekin eta aplikatzekoak zaizkion zergekin. UPV/EHUK ez ditu inolaz ere justifikatuko ekarpen ekonomiko horrekin egindako gastuak.

6.3. Eragileen ekarpenak ez du mugarik, eta deialdi honetatik jasotako finantzaketarekin estali gabeko proiektuaren kostu osora iritsi daiteke, deialdiaren ebazpenean azkenean emandako zenbatekoa kenduta.

6.4. Lehenengo urteko ekarpena kopuru bakar batez egingo da.

Horretarako, UPV/EHUK dagokion sarrera-eskaera bidaliko die inplikaturako agenteei. Eskaera horretan kofinantzatzen da eta dagokion urterokoa, ordaindu beharreko zenbatekoa, ordaintzeko modua eta ordaintzeko epea adieraziko ditu.

Nolanahi ere, sarrera-eskaera igorri eta hiru hilabete igaro ondoren ordainketarik egin ez bada, proiektua baliogabetu ahal izango da, eta, hala badagokio, dagoen aurrekontu-kreditua kenduko da.

6.5. Proiektuak bigarren urte bat badu, honetara joko da:

- a. Bigarren urterako aurrekontu ekarpena gauza dadin, ezinbestekoa izango da aurrekontu kontsignazioa edo konpromisoa egotea UPV/EHUK ekitaldirako duen aurrekontuan.
- b. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak urteko txosten bat eskatu ahal izango du, eta txosten horrek baldintzatuko du bigarren urteari dagokion diru-sartze eskaera ematea.
- c. Agenteen ekarpenei dagokien aurrekontu zuzkidura bigarren urteko horri dagokion diru-sartzea egiten den unean egingo da, eta blokeatuta mantenduko da proiektuan ezin erabilita, agenteak edo agenteek beren ekarpenak gauzatu arte.
- d. Bigarren urteari dagokion zenbatekoa urte naturalaren hasieran ordainduko da. Horretarako, UPV/EHUK dagokion diru-sartzea igorriko du, lehenengo urtean eginikoaren termino berberetan, baina bigarren urteari dagokiola adierazita.

7. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. - Proiektuaren kalitatea: • Proposamenaren interes zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa edo soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea (10 puntu). • Metodologiaren eta teknika instrumentalen egokitasuna (10 puntu). • Laneko plan bideragarri eta posibilista (10 puntu).	30
2. - Ikertzaileen kalitate zientifikoa eta teknikoa: • Ikertzaileen curriculumak (15 puntu). • Ikerketa-taldeak lortutako produktibitate zientifikoa (15 puntu). Gehienez 10 ekarpen (formularioan adierazitako eremuetan) eta 10 proiektu/kontratu baloratuko dira	30
3. - Proiektuaren transferentzia eta finantzaketa: • Proiektua kudeatzeko eta teknologia eta jakintza transferitzeko plana (10 puntu). • Aurrekontua proiektuaren helburuetara egokitzea (10 puntu).	20
4. - Proiektuan parte hartu duen eragilearen inplikazio ekonomikoaren maila, egindako diru ekarpenaren arabera. Atal honen balioespena honako irizpide hauekin bat etorrita egingo da: • Eragilearen ekarpena > % 10: 0 puntu • Eragilearen ekarpena > % 10 baina ≤ % 75: [(ekarpenaren %-10)*20/65] puntu • Eragilearen ekarpena > % 75: 20 puntu Puntuazio honen kalkulurako, dirutan egindako ekarpenak aintzat hartuko dira.	20
BALORAZIO OROKORRA	100

Horrez gain, emakumezko ikertzaileak buru dituzten eskaeren kasuan bi puntu gehiago erantsiko zaizkio eginiko ebaluazioaren emaitzari (alde batera utzita IN pertsona bat edo bi dauden).

Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 40 puntutik gorakoa izatea 1., 2. eta 3. irizpideen puntuazioen batura.

8. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2025ko martxoaren 17an hasiko da, eta 2025ko apirilaren 4an amaituko, 13:00etan (Espainiako penintsulako ordua).

9. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaera ikertzaile nagusiak egin beharko du, honako prozedura honen arabera:

- IKERTU aplikazio telematikoak eskaintzen duen inprimaki elektronikoa beteko da, eta bertan erantsiko dira, PDF formatuan, ikertzaileen curriculumak (CV), inprimaki elektronikoaren "UPV/EHU Taldea" atalean. CVak ezin izango dira beste edozein bidez aurkeztu. Izapide hori gauzatzeak ez du esan nahi eskabidea berariaz aurkeztu denik.

Itzapide hori egiteak ez du esan nahi, ordea, eskaera aurkeztu zenik paragrafo honetan deskribatutako prozeduren arabar Erregistro elektronikoaren bidez bidali arte.

b. Erregistro elektronikoren bidez aurketuko da:

- i. IKERTU aplikazioak eskaintzen duen inprimaki elektronikotik ateratako eskabidearen laburpena.
- ii. Bi aldeek eragilearekin sinaturiko lankidetzat-hitzarmena, deialdi honekin batera datorren eredu normalizatua erabilia.
- iii. Erantzukizunpeko adierazpena esanez ez daudela 2. oinarrian adierazitako egoeretakoren batean. Adierazpena jardueran arituko den taldeko kide guztiek sinatuko dute, proiektuaren gauzatzean laguntzen duen erakundeko pertsonak barne hartuta.
- iv. GKE edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeen kasuan, proposaturiko ikerketa jarduerarako funtsik ez dela eta erakundearen helburuak lortzeko adierazitako ikerketa jarduera gauzatzea ezinbestekoa dela dioen zinpeko adierazpena.
- v. GKE edo IAGEen kasuetan, betebeharrak betetzen direlako erantzukizunpeko adierazpena, unibertsitate-enpresa-gizarte proiektuen 2024ko deialdian parte hartu ahal izateko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta 2024ko irailaren 11ko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren Ebazpenean (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena) ezarritakoarekin bat etorritik, eskabidea UPV/EHUren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus>) ezarritako epean aurkeztu beharko da, eta "ESKATU" eremuan "Unibertsitate-Enpresa-Gizarte 2025" erreferentzia eta "Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak (U02000256)" unitatea adierazi beharko dira.

Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Aurreko b ataleko ii, iii, iv eta v ataletan adierazitako dokumentuak honako webgune honetatik deskargatu ahal dira: <https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-ikerketa-upv-e-hu>. Sinadurak behar dituzten dokumentu guztietan, agiri horiek elektronikoki izan beharko dute beti, eta ziurtagiri aitortu batek bermatu beharko ditu ([Ebazpena, 2024ko irailaren 11koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena](#)).

Eskaria aurkeztutzat joko da baldin eta, deialdian eskatzen den **dokumentazio guztia** elektronikoki erregistratu bada.

10. oinarria. LAGUNTZAK RUDEATZEKO ORGANOAK

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioa zuzendaritzaren bidez.

11. oinarria. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

11.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du deialdien web atarian. Bertan eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuko du, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Hamar egun baliodunen epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epea amaituta, baztertu egingo dira akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak.

11.2. 7. oinarrian zehazturiko 1. 2. eta 3. irizpideen balorazioa, ahal dela, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren (Unibasq) edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentziaren baten bidez egingo da. Ebaluatzaileak euskaldunak izan ez daitezkeenez, Ikerketa Errektoreordetzak euskeraz aurkeztutako eskabideak gaztelainera itzultzeaz arduratuko da. Itzulpena jaso ondoren, ikertzaile nagusiari bidaliko zaio posta elektronikoz, eskabidean adierazitako posta-kontuaren bidez, eta hark 5 egun balioduneko epea izango du berrikusteko eta adostasuna emateko. Epe hori zenbatzeko, posta-kudeatzaileak posta elektronikoa eman izanaren egiazteagiria hartuko da kontuan. Epe hori igarotakoan, IN itzulpenarekin ados dagoela ulertuko da.

11.3. 7. oinarrian aipatzen den 4. irizpidea bertan jasotako formula aplikatuta balioetsiko da eta

balorazioa Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak egingo du.

11.4. Uko egin ahal izango zaie ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eskabideei eta eskaturiko finantzaketa proposaturiko iturrien bidez lortzeko aukera gutxi daudela jotakoei.

12. oinarria. ERABAKIA

12.1. IGBBk erabaki proposamena egingo du deialdi honetan ezarritako ebaluazio irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontuan hartuta; hala, laguntza esleituko zaie, kreditua agortu bitartean, baloraziorik onena lortu duten proiektuei, betiere, 7. oinarriaren 1, 2 eta 3. irizpideetan 40 puntutako atalasea gaindituz gero.

Erabaki proposamen hori deialdien webgunean argitaratuko da, eta eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziko da.

12.2. Eskatzaileek 10 egunen epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, laguntza onartzen dutela edo hari uko egiten diotela adierazteko, edo alegazioak aurkezteko, eskabideak aurkezteko erabilitako prozedura berari jarraiki.

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubidea indarrrik gabe geratu dela ulertuko da.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen erabakia deialdien web orrian argitaratuko da, eta eskatzaile bakoitzari banakako erabakia ere bidaliko zaio.

12.3. Banakako erabakiaren kontra berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 1 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 124 eta 39/2015. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

12.4. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

13. oinarria. LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

13.1. Deialdiaren erabakia argitaratu ostean, ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen dokumentua, esleitutako laguntzak hornitu ahal izateko.

13.2. Deialdiaren erabakia argitaratutakoan, ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak laguntza onartu dela jakinaraziko dio eragileari, hark lankidetzat-hitzarmenean adierazitako finantziarioa bertan ezarritako baldintzen arabera jarraituz, gehienez 90 egunen epean, erabakia hartu denetik hasita.

Epe hori amaituta eragilearen ekarpena jaso ezean, Errektoreordetzak proiektuari esleitutako aurrekontua blokeatu eta, hala badagokio, kendu ahal izango du.

13.3. Aurreko 13.2. atalean ezarritakoa ez da aplikagarri izango eragile soziala finantzaketarik ez dakarren GKE bat edo IAGE bat bada.

14. oinarria. JARRAIPENA

14.1. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.

14.2. Urteko txostena. Hala eskatzen badu Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza, finantzaturiko ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak jardueren jarraipen zientifiko eta ekonomikoari buruzko txosten partziala aurkeztu beharko du horretarako berariaz emango zaizkion inprimakiak erabiliz. Txosten horien argitan ikusten bada proiektua modu esanguratsuan aldentu dela planetik (aurreikusitako helburuak lortu ez direlako edo dirua ez delako planteatu ziren helburuetarako erabili), unibertsitateak laguntza ematen ez jarraitzea edo proiektua bertan behera uzteko espediente zabaltzeko eta erabili ez den kreditua erretiratzea erabaki dezake, bai eta kofinantzatzen duen agente berak jarritako dirutik oraindik erabili ez dena itzultzea ere.

14.3. Amaierako txostena. Jarduerak amaitu eta hurrengo hilabetean, lortutako emaitzak horretarako emango den inprimaki batean idatzitako amaierako txosten batean jasoko dira. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta hura kide deneko sail edo institutuko zuzendariak onespina eman beharko dio. Honako deialdi honetan emandako laguntzaren indarraldia amaitzerakoan egingo da txosten hau.

14.4. Azken ebaluazioa. Amaierako txostena entregatu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egingo

da. Ebaluaziorako hauek hartuko dira kontuan:

- a. Emaizak plazaratzeko egindako argitalpenak, eta, hala dagokionean, lortutako aplikazioak, patenteak, prototipoak eta merkaturatzeko moduko bestelako produktuak.
- b. Zehatz daitezkeen beste irizpide batzuk.

14.5. Eragilearen txostena. Proiektuak amaitu eta gero, parte hartu duten eragileek txostena egin beharko dute honako hauek azalduz: proiektuaren barruan burututako jarduerak, lortutako emaitzen ebaluazioa eta etorkizunean emaitzok ustiatzeko aukerak. Txosten hau horretarako emango den inprimakian idatzi beharko da eta eragilearen aldetik proiektuaren arduradun izandakoak sinatuko du.

14.6. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira. Faktura horiek eskuragarri egongo dira Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne auditoretzako zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie.

Inongo kasutan ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko dokumentuak galdu direla eta.

14.7. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

15. oinarria. EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

15.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko komunikazio zientifikoko ekintza guztietan ere (txostenak, hitzaldiak, biltzarrik eta ekitaldi zientifikoak), ikertzaileek UPV/EHUrekin duten lotura adieraziko dute eta erakundearen irudi korporatiboa agertuko da, Unibertsitateak ezarri moduan.

15.2. Ikertzaileak zein erakundetako kide diren adierazteaz gainera, finantzaketa jarri duen erakundearen edo erakundeen izenak ere agertuko dira eskerrak emateko atalean.

15.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanez ahal, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualaerako bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak honela iritziko balio. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualaren titularra. Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragileekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoak negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

16. oinarria. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

16.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere haren xedea betetzat jo denean, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribatuaren batetik, horrek bere garaian eman zen laguntzaren aldeko erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Horretarako, erabakia hartu aurretik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedaturiko administrazio prozedura burutuko da, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta, eta haren berri emango zaio, indibidualki, ikertaldeko ikertzaile nagusiari.

16.2. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bidaltzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik diru laguntza jasotzen denean, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkezten bazaizkie behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, aldeztu aurretik Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.

- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeari.
- e. Proiektuetako taldeetako pertsona kopurua aldatzea (behera eginda), 17. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- f. Jarduera finantzatzeko deialdietan sartzen ez diren gastuak egitea edo UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak bete gabe gauzatzea.
- g. Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo erosketaren bat eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, erabili gabeko finantzaketa kenduko da eta, hala badagokio, proiektuan laguntzen duen erakundeari itzuli beharko zaio emandako eta une horretara arte erabili gabeko kopurua.

17. oinarria. IKERKETA PROIEKTUOKO TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

17.1. Ikerketa proiektuko ikertaldeen osaera edo zer aldaketa egiteko baimena eskatu beharko zaio Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordeari, gestionatu beharreko ebazpena gestionatuko duena.

Eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik urtebete igaro arte ez da onartuko inork ikertaldea uztea, ezpada ezinbestean.

Aldaketa hori eskatuko balitz, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeari IGBBri helaraziko dio eskaria, txostena eman dezan berori onartu edo ezetsi beharrari buruz eta erabaki proposamena Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeari jakinaraz diezaion.

17.2. Ikertaldeen kideen aldaketak, altak eta bajak Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak baimena ematen duen egunean hasiko dira eragina izaten, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak aurretik txostena eginda.

18. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztian diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa beteko da; besteak beste, diru laguntzak itzultzeari eta arau hauste eta zehapenen araubideari buruzko xedapenak.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

19. oinarria. IKERKETA JARDUEREGIN LOTURIKO IRIZPIDE ETIKOAK

19.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketen buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUKo Arautegia ere.
- Gizakiekin eta beren Lagin eta Datuekin Egindako Ikerketen Buruzko Etika Batzordearen (GIEB) alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostena aurkeztu, UPV/EHUKo ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duen bezala, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakiak onetsi eta 2014-2-17ko 32. EHAAn argitaratuta.

19.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko araudia bete (53/2013 ED).

- Animalien Ongizaterako Etika Batzordearen (CEEa) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

19.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko araudia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin eginiko ikerketetarako Etika Batzordearen (CEIAB) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

19.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

19.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta hi hilabeteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau deialdiaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2025eko martxoaren 14an

Gotzone Barandika Arogitia
Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea
Vicerrectora de Transferencia e Internacionalización